

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Alkatetza	Auzoko andre batek auzoan ludoteka bat ipintzeko eskatu du.	Zabaldu den azkeneko ludoteka Jazinto Olabekoa izan da. Eragin-eremuaren arabera, aztertuko da horrelakoak beste leku batzuetara hedatzeko asmoa.
Alkatetza	Auzoko bizilagun batek Bar Nuevo-ren ostean umeentzako jolas-tokia ipintzea eskatu du.	Iritzi kontrajarriak daude gaiaren inguruan. Batzuk alde hartan jolas-tokia ipintzea nahi dute, eta beste batzuk ostera, orain dagoen moduan uztea. Horregatik, hausnarketa-prozesu bat irekiko da jolas-tokia ipini behar den ala ez zehazteko. Edozein kasutan ere, eskaeran aipatzen den leku horretatik gertu jolas-tokiak daude.
Alkatetza	Ubitxa kaleko 23ko auzokide batek hango erreka garbitzeko eskatu du auzokide batek.	Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen arloari errekek mantentzea eskatu zaio, eta, beste batzuen artean, aipatu den erreka hau.
Hirigintza	Bar Nuevo-ren ondoan dagoen garaje mekanikoaren jarduera gehiago kontrolatzea eskatu du. Ziurtatzen du ia egunero ateratzen dela ke-mordoa.	Hirigintza Sailaren tramitazioari dagokionez esan behar da tailer mekaniko horrek tramitatu duela dagokion espedientearekin, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuena. Irregularitasunen bat ikusiz gero, kexak idatziz egin behar dira eta dokumentuetan oinarritu horren inguruan zerbait egin ahal izateko. Udaltzaingoari ere dei dakioke eragozpenak sortzen diren unean bertan.
Hirigintza	Urki kaleko 6. etxeoket patiora sartzeko sarbide bat eskatu dute, izan ere, igogailua eraiki zenetik ez baitute patioa sartzerik.	Obra-lizentzia eskatu behar dute. Hirigintza Sailetik tramitatuko da.
Obrak	Informazioa eskatu du Bidebarrietatik Errekatxura bitarteko pasoari buruz.	Bideragarritasun azterketa bat egiten ari da kontutan edukita etorkizuneko Errekatxuko garapenarekin bateragarria izan behar duela.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Obrak	Errekatxuko bizilagun batek dio Portaleko igogailuak ez diela balio, igogailu hori hartzen badute buelta handi bat eman behar dutelako.	Teknikoki, horixe da dagoen konponbide bideragarri bakarra. Itzulinguru bat eman behar da eskailerak ez hartu eta Errekatxura iritsi ahal izateko.
Obrak	Errekatxuko bizilagun batek esan du ezin dela espaloietatik ibili, makurtuta daudelako.	Espaloiak konpontzeko lanak kontratatu dira eta aurreikusita dago hauek urtea amaitu baino lehen amaitzea.
Obrak	Urki Kurutzekoaren parkean gerizpe bat egitea eskatu du. Esaten du udan bero handia egiten duela leku hartan.	Datorren urtean pergola bat jartzeko aukera aztertzen ari da.
Obrak	Auzoko pertsona batek Ubitxa kaleko 16aren parean dagoen oinezkoen pasabidea goratzea eskatu du.	Lan hau "2016ko pasabide goratuak" proiektuaren barruan egin da.
Obrak	Urki kaletik Polonia Etxeberria kalera doan igogailuaren irteeran dagoen pasoaren egoeraz kexatu da. Esaten du espaloi-zati bat falta dela.	Espaloi bat egingo da. Lanak kontratatuta daude eta urtea amaitu baino lehen egingo dira.
Obrak	Pertsona bat kexatu egin da Polonia Etxeberria kaleko 14, 16 eta 18ko eskudelak egoera txarrean daudelako.	2017 urtean konponduko dira.
Obrak	Mutiola kalea oso estua dela eta autoak alde bietan eta espaloi gainean aparkatzen dutelako kexatu da, oinezkoak galtzadara atera beharrean egoten direlako.	Udaltzainak salaketak jartzen ari dira oinezkoen igarotzea eta lokaletako pasabidea uzten ez duten ibilgailuei.
Obrak	Errekatxu kalean asfaltoak duen egoera txarra salatu du.	Ur Zerbitzua konpontzen ari da kutxatilen inguruan geratzen den aldea, zertxobait hondoratuta eta kaltetuta dagoelako. Hortik gorakoa datorren urtean aztertuko da, 2017 urtean.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Obrak	Gure Bazterra sozietatearen gainean dagoen plaza txikia konpontzea eskatu du pertsona batek.	Proiektua idazten ari da eta lanak 2017 urtean egingo dira.
Obrak	Pertsona batek Potosioren etxearen proiektuaren inguruko informazioa eskatu du.	Sustapen pribatu bat da.
Obrak	Urkiko kioskoaren aldameneko oinezkoen pasabideak ikusgaitasun gutxi duelako kexatu da.	Ispilu bat ipini dute oinezkoen pasabidean ikusgaitasuna hobetzeko.
Obrak	Polonia Etxeberria kaleko 1. eraikinaren kantoian dauden harmaila biak kentzea eskatu du.	Bi harmailak kendu dira eta bidegurutzera asfaltatu da.
Udaltzaingoa.	Ubitxa kaleko 16ko bizilagun batek salatu du txakur bat egoten dela lotzeke San Kristobaleko tabernan.	Ez da ohikoa txakurren bat solte egotea aipatu den taberna horretan.
Udaltzaingoa.	Kexa sartu du batzuetan autoak Polonia Etxeberria kaleko 25aren osteko pasabidean aparkatzen dutelako.	Seinale gehiago ipini dira, eta ematen duenez, ez dago arazorik.
Udaltzaingoa.	Auzoko pertsona batek Urkiko Eroskiko igarobidean dauden eskaileren pasoa ondo ixtea eskatu du.	Eskailerak pribatuak dira eta eraikin hartako auzokoei dagokie itxitura orain baino zertxobait beherago jartzea.
Udaltzaingoa.	Arikixatik Urtzailera irtetzeak duen arriskuaz kexatu da auzokide bat. Galdetzen du semafororik ipini daitekeen.	Semaforo bat jarritz gero zirkulazioa gelditu egingo litzateke. Bidegurutze hori goratu egin da abiadura murrizteko. Bide-ispilu bat dago jarrita Arikixaneko zubitik datozen gidariek Bideberrieta kaletik datozen ibilgailuak ikus ditzaten.
Udaltzaingoa.	Salatu du gidariek txarto aparkatzen dituztela autoak Urki kaleko 10, 12 eta 14aren parean.	Arazo hori kontrolatzen ari da.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Udaltzaingoa.	Txaltxa-zelaitik Urkira doan zati horrek beldurra ematen duela eta trapitxeo leku bat dela salatu du auzoko bizilagun batek.	Ertzaintza joan da bertara eta hauxe baieztatu du: horren gainean inon ez dagoela salaketarik jasota eta ez dela ezer ikusi leku hura trapitxeo-leku bat dela esateko. Hala ere, Ertzaintzak leku hura zaintzen jarraituko du.
Udaltzaingoa.	Kexa hau sartu du pertsona batek: pertsona batzuk zabor-educiontzietan dagoena kanpora ateratzen dutela, apurtu eta hartzea nahi ez dutena educiontzitik kanpo uzten dutela, ingurua zikinduz.	Udaltzaingoko pertsonalari aginduak eman zaizkio educiontzietatik gauzak ateratzen dituzten pertsonak identifikatu eta zehapen espediente bat tramitatzeko.
Udaltzaingoa.	Kexatu egin da auzoko bat, batzuetan, autoak Errekatxuko bidearen hasieran aparkatzen dutelako eta oinezkoen pasabidea gurutzatu behar duten oinezkoei ikuspena kentzen zaielako.	Hori kontrolatzen ari da, eta inguru horretan behar den moduan aparkatzen ez duten gidariei salaketak jarri zaizkie.
Zerbitzuak	Errekatxu kaleko 13ko bizilagun batek desgaituentzako gordetako aparkalekua berriro pintatzea eskatu du; jendeak txartel barik aparkatzen duela-eta kexatu da.	Aparkalekua berriro pintatu da. Desgaituentzako gordetako leku baten txartelik ez duen ibilgailu batek aparkatu duela ikusten bada, isuna ezartzen zaio.
Zerbitzuak	Errekatxu kaleko 13ko bizilagun batek dio kutxatilaren txapa falta dela eta horregatik egiten direla putzuak eta kotxeak pasatzen direnean zipriztina ateratzen dutela; gainera, pasatzerakoan, zarata ateratzen dute.	Ikuskapen bisita egin da eta Gipuzkoako Uren kutxatilik eta balbulak direla detektatu da. Eman zaie abisua eta arazoa konpondu egin da.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Zerbitzuak	Errekatxuk duen garbitasun faltagatik kexatu da.	Kexa Mankomunitatera bidali da, eta ikuskapen bisita egin ondoren hauxe azaldu du: Errekatxu kalea bera ez dagoela zikina, arazoa gehiago dela inguru hartan dagoen lirdingagatik (lurrean, hormetan, iturrian...). Bestalde, hauxe aipatu dute: auzoko pertsonaren batek kale-garbiketako paperontzia erabiltzen duela edukiontzizat eta zabor poltsaz betetzen duela. Horrek asko laguntzen diola kaleari zikin eta utzikeria itxura ematen. Produktu irristagaitza bota da eta lurra itxura garbiago batekin utzi du. Horrez gain laneko agindua eman da horma eta iturri inguruak garbitzeko.
Zerbitzuak	Errekatxuko iturria garbitzea eskatu du.	Lan-agindu bat bidali da <i>Falch</i> -a bidali eta hango horma, iturria eta inguruak garbitzeko.
Zerbitzuak	Kexatu egin da Ubitxan dagoen argiteria publikoa ez delako handia.	Laneko agindu bat egin da inguru hartan dauden luminaria guztiak aztertzeko eta erreta daudenak edo keinukariak kendu eta berriak jartzeko.
Zerbitzuak	Portaleko igogailua 23:00etan geratu beharrean 22:00etan geratzen delako kexatu da.	Erlojua doitu da izan ere arazo hori igogailuak markatzen zuen orduaren desinkronizazio baten ondorioz sortu baita.
Zerbitzuak	Auzoko andre batek igogailuak gau osoan martxan edukitzea eskatu du, horretarako auzoko jendeak ordaindu behar badu ere.	2016ko otsailetik aurrera igogailu guztien ordutegia luzatu egin da eta 02:00etara arte daude martxan. Helburua hauxe da: ordutegia luzatzeak mesede egin badu eta igogailuak modu arduratsuan erabiltzen badira, igogailuak 24 orduz edukitzea martxan hilabete batzuetan.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Zerbitzuak	Auzoiko andre batek kexa sartu du Urki Kurutzekua parkearen inguruan argi gutxi dagoelako.	Egin zen auditoretza hartatik ondorio hau atera zen: ez direla betetzen argitasunak bete behar dituen gutxienerako irizpideak, beraz, luminaria horien ordeztu LED bonbilak jarriko dira toki hartan behar den argitasuna egon dadin. 2016ko Aurrekontuan sartu da eta egin da.
Zerbitzuak	Urki Kurutzekuako erdiko eskailerak eskudel batek edo antzeko zerbaitekin ixtea eskatu dute, arriskutsua delako.	Eskudel bat ipini dute morroilo batekin.
Zerbitzuak	Urki Kurutzekuako parke aldean komun publiko bat jartzea eskatu du. Esaten du jendeak etxe osteak eta merenderoko arraska erabiltzen duela beharretarako	2016ko aurrekontuetan ez da inguru horretarako komunikatu sartu. Datozen aurrekontuak egiterakoan kontuan izango da.
Zerbitzuak	Ubitxa kaleko 21 behean, eskumako eskuan bizi den andre batek kexa hau sartu du: etxean hezetasuna duela espaloitik iritsitako filtrazioengatik, espaloia bere leihoaren parean geratzen baita.	Apirilaren 22an erregistratu zen erreklamazio hau eta 24an egin zen ikuskapen bisita erreklamazioaileak lagunduta. Teknikariak ez du ikusi loturarik aurreneko aldiz 2015eko apirilean erreklamazioa hezetasunen eta laurogeiko hamarkadaren hasieran egindako obra haien artean, eta horregatik proposatu du bere txostena Gobernu Batzarrari bidaltzea egindako hezetasun-erreklamazio horri ezetza ematen. Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 8an onetsia.
Zerbitzuak	Urki ikastetxearen sarbidea erakargarriagoa egitea eskatu du pertsona batek.	Ikastetxea baloratzen ari da zein dekorazio jar daitekeen sarbide horri beste itxura bat emateko.
Zerbitzuak	Igogailu publikoetan "Ez erre" pegatina jartzeko eskatu.	Mantentze-lana egiten duen enpresari udalerrri honetako igogailu guztietan EZ ERRE pegatina jartzeko abisua eman zaio.
Zerbitzuak	Urkin, autobideko zubiaren azpian dagoen parkeko jarlekuak txukuntzea eskatu du.	Jarlekuak jarri dira.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Zerbitzuak	Pertsona bat kexatu egin da Errekatxuko iturria egoera txarrean dagoela eta urak ihes egiten duelako.	Aberia konpondu da.
Zerbitzuak	Pertsona batek kexa hau azaldu du: Aranetik Errekatxura doan bidearen espaloia egoera txarrean dagoela eta baldosak apurtuta dituela.	Aranetik Errekatxura doan bidearen espaloiko baldosak konpondu dira.
Zerbitzuak	Bidearen amaiera aldean dagoen eserlekua edo bankua zaharra da.	Banku hori kendu eta beste bat jarri da.
Zerbitzuak	Ubitxa kaleko 8an dagoen arbola handiegia da eta eragozpenak sortzen ditu.	Arbola horren abarrak inausi dira eta arazoa konpondu da.
Zerbitzuak	Ubitxa kaleko 10, 12 eta 14an moztutako sasiak biltzea eskatu dute.	Lursail hura pribatua da, eta ziur aski, sastraka- edo sasi-garbiketa lanak egingo zituzten.
Zerbitzuak	Txaltxa-zelaiko lorategietan argi gehiago jartzea eskatu dute.	Argitasunari buruzko estudio bat egin zen eta araudiak markatzen dituenetik oso gora daude baloreak. Eraitza 24 luxekoa izan zen gutxienezkoa 10 luxekoa denean. Beraz, ez da ikusten argiaren intentsitatea gehitzeko edo luminaria gehiago jartzeko premia dagoenik.
Zerbitzuak	Pertsona batek salatu du Eroskiko igarobidea beti zikina egoten dela botiloientatik.	Mankomunitateari eman zaio horren berri eta haxe adierazi digu: domekero ibiltzen direla garbitzen horrelakoak egiten diren lekuak. Leku hori ere zerrendan sartu dute kontuan hartzeko.
Zerbitzuak	Kexa: Urkiko kioskotik Polonia Etxeberria kalera doan igogailuak ez du aireztapenik.	Mantentze-lanaz arduratzen den enpresari abisua pasatu zaio eta aireztatze-sistema martxan jarri da.

# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Zerbitzuak	Urki kaleko 15. etxearen parean hidrante bat jartzeko eskatu du.	Urkiko 16 zenbaitik gertuen dagoen ureztatze-ahoa 45 metrora dago. Hala ere, kontutan izanda gertuen dagoen hidrantea 157 metrora dagoela, Suhiltzaileekin aztertuko da hidrante bat etxebizitza
Zerbitzuak	Urkiko kioskotik Polonia Etxeberria kalera doazen eskailerak garbitzeko eskatu du pertsona batek.	Mankomunitateari bidali zaio oharra. Ikuskapen bisita egin du eta hauxe azaldu digu: alde hura kontu handiz garbitzen dutela eta garbi dagoela. Eskailerak nola zeuden ikusi zen eta Mankomunitatetik diote agian mangera gehiagotan erabil daitekeela baina ez premia dagoelako, alde hura ez baitago zikina.
Zerbitzuak	Polonia Etxeberria kaleko 26. zenbakiaren osteko barandak lokarriak lokatuta dituela salatu dute.	Maiatzean udal brigadak ahokadura- eta berrestutze-lanak egin zituen, segurtasun laboralaren baldintzak betez.
Zerbitzuak	Igogailuak gehiago garbitzea eskatu du.	Masterclin etxeari pasatu zitzaion abisua eta garbiketak adostu bezala egiten ari direla adierazi digu (asteen birritan, asteartean eta ostiralean). Hala ere, garbiketa sakonagoa egitea eskatu zaio inguru hartako igogailuetan.
Zerbitzuak	Errekatxu auzoa bertan behera lagata dagoela salatu du.	Auzoa bertan behera lagata dagoela esateko, ziur aski, gunen hartan lirdinga dagoelako izango da (espaloian, horman eta iturri ondoan), eta horrek dena zikinago eta zatarrago egiten du. Mankomunitateak aztertu du kale hura eta ez du ikusi garbitu ez delako zikina dagoenik. Iturria konpondu da, espaloietan irrist ez egiteko tratamendua eman da, desgaituen aparkalekuko lurreko seinaleak berriro pintatu dira, Falcha handik pasatuko da...
Zerbitzuak	Sansaburutik Errekatxura doan aldapako espaloian dauden arbolak inausteko eskaera egin du.	Arbola horiek sekula ez dira inausi ez zelako premiazkotzat ikusten. Hala ere laneko agindua eman da lorazainek ikuskapen bisita bat egin dezaten, eta beharrezkoa dela ikusi denez, arbola horiek inausi dira.



# PARTICIPACIÓN CIUDADANA

REUNIÓN DE ZONA: Urki

FECHA: 19/11/2015

Departamento	Extracto	Respuesta
Zerbitzuak	Salatu du Sansaburutik Errekatxura doan aldapa labana dagoela.	Duela urte bi inguru hartan irrist ez egiteko tratamendu bat bota zen, eta bermea 3 urtekoa zuen. Kexak zioena aintzat hartuta eta esandako denbora hori oraindik igaro barik alde hura berriro nolako egoeran zegoen ikusita, lan horiek egin zituen enpresari deitu zitzaion eta urtarrilean beste tratamendu bat eman zuen Sansaburutik Errekatxura eta handik bihurgunera doan espaloian, arazoa konponduz.
Zerbitzuak	Errekatxuko horma, iturritik gertu dagoena, zikina dago: horixe izan da sartu den kexetako bat.	Lan-agindu bat egin da horma eta Errekatxuko iturriaren inguruak garbitzeko.
Zerbitzuak	Mutiolako parkearen lorontzietako landareak zaintzea eskatu du.	Lan-agindu bat eman da Mutiolako parkearen lorontzietan dauden landareak mantendu daitezen.
Zerbitzuak	Igogailutik Errekatxura bitarteko horma konpontzea eskatu du.	Lan-agindua egin zen eta horma konpondu zen.
Zerbitzuak	Bolinguako eskaileren lirdinga garbitzea eskatu du.	Lan-agindua eman da eskaileretan Falcha pasatzeko eta inguru hartan dagoen lirdinga kentzeko.